

# LOBIANO JAUREGIA

XVI. mendeko jauregia dugu hau ere, Torretaren garai berekoa, baina haren erabat aurkakoa bai banaketa, bai apaindura eta bai funtzioan. Lobiano estilo berriei jarraiki eraikia zen, aberastasuna erakusteko egina, edertasunaren bidez boterea erakutsiz, errenazentismoaren ideien arabera.

## KOKALEKUA:

Bere kokalekua klabea izango zen zenbait zentzutan: Gipuzkoatik herrirako sarreran zegoela irudikatu behar dugu, herriko harresietatik kanpo, edozeinek herrira sartu nahi bazuen bide horretatik eraikina ikusten zuelarik. Bide hau oso erabilia izango zen, Burgos eta kostaren arteko lotura gunen moduan erabiliko baitzen, artilea



eramateko merkatal bide moduan. Kontutan izan behar da gainera Markesaren jauregia oraindik ez zela eraikita egongo, eta beraz, eraikin hau herriko garrantzitsuenetako bat izango zela Torreta eta Zarra Etxearekin batera. Bere kokalekuak herriaren gaineko kontrola ere baimenduko zion, herriaren gainetik geratuko baitzen.

## BEREZKO JABEA:

Etxearen eraikuntza agindu zuena merkataria aberats bat izango zen: Rodrigo de Lobiano, eta bere emaztea, Maria Agirre, Araban zutenak beren jatorria. Jauregiaren eraikuntza baino belaunaldi bat lehenago etorriak bizitzera Ermura, eta aberastu egingo ziren bertan. Hil baino urte batzuk lehenago, 1550ean, Rodrigo de Lobianok Jauregiaren eraikuntza agindu zuen, bere lau seme-alabei ondorengotzan uzteko. Bere merkataritza lanez gain, Lobianotarrek botere politikoa ere nahiko zuten, momentu horretan familia gutxi batzuen kontrolpean zegoena (Malleatarrak, Bustintzatarrak, Zalduatarrak...). Gerora lortu zutela ikusiko dugu, beren ondorengo batzuk herriko alkate izatera iristen baitira.

## **ERAIKITZAILEAK:**

la ez dakigu ezer eraikuntza eraikitzeaz arduratu zirenei buruz; bakarrik Bergaran estilo antzekoko eraikinak aurkitu ditzakegula, geroagokoak badira ere. Honi buruzko teoriarik onartuenak Burgos edo Valladolideko harrobiko maisu bat kontratatuko ztela dio, bi leku hauekin merkataritza erlazioak baitzituen etxeko jabeak.

## **ERAIKINAREN KANPOALDEKO ANALISIA:**

Eraikinaren kanpoaldearen analisiarekin hasiz, ezaugarri bat azpimarratu behar da: inpresionatzeko egina dago. Lau paretek dekorazio oso konplexua izango dute, nahiz eta hego-ekialdeko fatxada den apainduena, hau baitzen herriko sarreratik lehenengo ikusten zena.

Paretak kalizazkoak izango dira, harlanduazkoak fatxada nagusian eta harlangaitzezkoak gainerakoetan. Barruko estrukturako paretak harlangaitzezkoak izango dira baita ere; apaindurak berriz hareharrizkoak.

Bere ezaugarriak errenazentistak dira argi eta garbi, ekialdera begira dauden erdi puntuko arkuak esaterako. Bitxia da arku hauek hemen aurkitzea, oso eraikin errenazentista gutxi baitzeuden garaian Euskal Herrian, non oraindik gotikoa zen nagusi XVI. mendean. Elementu errenazentista hauen artean, sarrerako ateko zutabe jonikoak aipagarriak dira, leihoetako batean ere topatuko ditugunak, eta aurreko fatxadako leihoetako kapitelak. Aipatu beharrekoak dira baita ere beste hainbat elementu, ate printzipaleko diamante puntak, edo izkinetan elementu fantastikoak: otsoak (bat izan ezik beste guztiak galduta badaude ere). Ateko medailoiak Lobiano sendiko kideen irudiak izango ziren ziur aski, eta armari bat ere izango du etxeak, kasko batekin eta bi lehoi. Hala ere, berezitasun handi bat izango du Jauregi honek: "urrezko proportzioa" izenekoa aplikatu zitzaion, kasu bakarrenetako bat izanik Euskal Herri mailan.

Detalle txiki hauek ez dira halabeharrezkoak izango; Rodrigo de Lobianok transmititu nahi zuenaren zerbitzura egongo baitira, ate gaineko figurak oso ondo islatzen duen moduan: Mucio Scevolaren irudia izango da, beso bakarra izateagatik, eta duen eskuan daga bat izateagatik identifika dezakeguna, XVI. mendeko modara jantzita. Scevola pertsonai heroiko fantastiko bat izango zen, k.a. VII. mendeko patrizio erromatarra irudikatzen zuena, eta balio sozial eta abertzaleak sinbolizatzen zituen.

Bere kondaira oso bitxia da: Erroma oraindik boteretsua ez zen garai batean, etruskoek eraso egin nahi izan zioten, beregain boterea izateko. Gazte talde bat, horretaz jabetu, eta erasoaren aurreko gauean, etruskoen kanpamentuan sartu eta beren erregea hiltzea erabaki zuten. Sartzea lortu zuen lehenengoa Scevola izan zen, eta etruskoz jantzia, erregearen dendaraino joan zen. Bertara iritsi, eta gizon bat ikusi zuen, bizkarrez; erregea zela pentsatu, eta bertan hil zuen. Une horretan sartu zen benetako erregea dendara, eta Scevola atxilotu zuen, interrogatzeko. Zein zen, zer nahi zuen eta zergatik hil zuen gizon hura esaten ez bazuen bizirik erreko zutenaren mehatxua egin zioten, eta Scevolak, Erromarengatik hiltzeko prest, bere eskuineko besoa suaren gainean jarri, eta erretzen zen bitartean, "gorputza ez da ezer ohorea nahi dugunontzat" esan zuen. Errege etruskoak, honen aurrean, bititza barkatu zion, eta Scevolak, esker honez, zertara joan zen kontatu zion.

Erregeak, honen aurrean, eraso bertan behera uzteko agindua eman zuen, eta Etruriara itzuli ziren. Horrela lortu zuen Scevolak gerra eragozteak.

Gainerako fatxadak, hau da, iparraldekoa eta mendebaldekoa, ez dira horren konplexuak izango inondik ere, ezkutatuagoak baitzeuden. Ez dakigu gehiegi jatorriz pareta hauetan egongo zenari buruz; izan ere, ipar mendebaldeko fatxada sute batean kaltetua izango zen, eta ez da orijinala kontserbatzen. Badakiguna da mendebaldeko fatxadan hiru leiho egongo zirela, eraikinaren beharrei erantzutera bideratuak, arrazoi estetikoengatik eginak baino gehiago.

### **ERAIKINAREN BARNEALDEAREN ANALISIA:**

Behin barrura sartuta, argi ikusten ditugu merkataritzarako prestatutako etxe bat zela, eta luxu handikoa: Ate printzipala, oso zabala, zalgurdiak sartzeko prestatua egongo zen, eta ondoren, hauek uzteko gela bat egongo zen. Gela hau, eta orokorrean, gela guztiak, oso dekoratuak egongo ziren. Paretek pinturak izango zituzten, eta gela nobleenek berriz tapizak eta kuadroak. Gela honetatik, hainbat irteera ditugu: batetik, ukuilura, non zalgurdietako zaldiak utzi. Bestetik, U forma zuen almazen batera, eta azkenik, goiko pisura zeraman eskailera batera (lehen harrizko heldulekua zuena, kontserbatzen ez bada ere).

Almazenean Lobianok bere merkantziak gordeko zituen, batez ere burdina lantzeko tresnak izango zirenak. Gezi leiho batek argizatuko zuen gela hau. Almazen honetatik, egurrezko eskailera batzuk igoz, erdi ezkutututako gela txiki batera igoko zen, non mahai txiki batentzako lekua egongo zen, eta leiho bat izango zuen zalgurdien gelara begira, sarrera eta irteerak kontrolatzeko.

Beheko pisuko beste geletako batera pasaz, zalditeriak ez ziren oso zabalak izango, gaur egun gela hori denaren tamainakoa izanez gutxi gora behera. Ur kanal batek zeharkatuko zuen goitik behera. Hemendik bodegara eta etxerako produktuen almazenera joateko aukera zegoen. Bodegan pare bat gezi leiho egongo zirela, fermentazio gasi ateratzen uzten zietenak uste da. Hona zuzenean zalgurdien gelatik joateko aukera egongo zen, eskailera azpian dagoen tunel batetik, oraindik ere kontserbatzen dena.

Lehenengo pisua bizilekua izango zen, pisu noblea ere deitua. Logelak fatxada printzipalera begira egongo ziren, balkoi nagusiaren ondoan dauden hiru gelak izanik. Hiru hauen artetik azkena etxeko nagusiarena izango da, pasillo luze eta ilun baten amaieran zegoena. Horrez gain, sukaldea ere solairu honetan egongo zen, mendira begira egongo zena, beste gelek zeuzkaten bistarik gabe. Sukaldean lan egiten zuen zerbitzariaren gela ere, honen ondoan egongo zen. Sukaldeak harraska txiki bat izango zuen, paretan bertan egina, balda bat eta despentsa txiki batekin batera. Hala ere, pisu honetako gela nagusia egongela izango zen: hego mendebaldeko izkinak egongo zen, zatirik publikoenean, eta bistarik onenak zituenean. Pisu guztiko gelarik handiena izango zen, balkoi nagusia eta erdi puntuko arkudun hiru leihoak barne hartuz. Goizetan bakarrik jasoko zuen eguzkiaren argia gela honek, eta beraz, garbi ikusten da horrenbeste leihoren funtzioa ez zela eguzkiaren argia jasotzekoa, txunditzekoa baizik. Espazio ireki bat da, oso dekoratua, pinturekin paretetan. Errege Bidearen gaineko eta herriaren gaineko bistak izango zituen.

Bere funtzioa jangela izatea izango zen; baina bisitariei harrera ere hemen egingo zieten, eta beraz, horrenbeste dotorezia hauek txunditzera bideratuta egongo zen.

Solairu honekin amaitzeko, ziur aski, bodegaren gainean, tarteko solairu moduko batean, txakolina edo sagardoa egiteko prentsa bat egongo zen, garai horretan horrelako tamainako jauregi gehienek izan ohi zuten moduan. Leiho txiki bat ere egongo zen, prentsa zegoen gelari argia emango ziona. Letrinetarako pasabidea ere hemen egongo zen, eta aletegi txiki bat ere bai.

Pisu honetatik ateratzeko egurrezko eskailera bat egongo zen, aurrekoa baino askoz luxu gutxiagokoa, baina hala ere guztiz ere, estalia, behar bada ganga faltsu itxurako batekin, eta pinturez apaindua. Teilatu azpira eramango zuen eskailera honek, gela bakar batez osatua egongo zena, eta bi funtzio izango zituen: batetik, zerbitzuaren logela funtzioa izango zuen, eta bestetik, lehortegiarena, jasotzen zuten fruta eta haragia lehortzeko. Erdi puntuko arku forma zuten leiho txikiak izango zituen, aireztatzeko, etxearen gainerakoaren luxu itxurarekin hautsi gabe.

Jauregi zoragarri hau lorategi eta baratza eder batek osatuko zuten, ekialdeko fatxadan kokatuak.

### **GEROAGOKO JABEAK:**

Rodrigo de Lobiano eta Maria de Agirre hil ondoren, jabe ugari izan zituen Jauregiak. Lehenengoak beren seme-alabak izango ziren. Lehen aipatu dudan moduan, lau seme alaba izango zituen bikoteak, mutil bat eta hiru neska; eta honez gain, Rodrigok sasikume bat izango zuen, beste emakume batena, baina bere seme bezala onartzen zuena, besteek zituzten ondorengotza eskubide berak izango ez bazituen ere. Hala, Juan de Lobiano, seme ofizial bakarra, maiorazgo bihurtuko zen eta Jauregia jasoko zuen ondorengotzan. Juan merkataria izango zen, aitaren moduan, eta baita Francisco ere, Rodrigoren sasikumea. Bien negozioak arrakastatsuak izango ziren, bai Indiekin, bai Terranovarekin eta bai Kantabrikoko beste zenbait porturekin merkataritzan arituz. Bien arteko kolaborazioak ere burutuko zituzten.

Hala ere, jatorrizko jabeak hil eta urte gutxiren buruan legezko lau seme-alabetatik hiru hil egingo ziren, Juan barne, denak seme-alabarik gabe. Alaba bat bakarrik geratuko zen, Maria Alonsa, halabeharrez, alaba bat zuen bakarra. Hil ziren seme-alaben artean batek, Marinak, 1559an hil aurretik, idatzita utziko zuen bere testamentuan uzten zuen dirua Ermuan mojen komentu bat irekitzeko erabiltzea nahi zuela. Garai hartako jendearen ideologia esplikatzea komeni da une honetan: Salbazioa ordaindu beharra zegoen, izan ere, donazio bat egin ezker, elizak ongilearen izena gogoratzen zuen, eta beregatik errezatu. Horregatik, jende ugari bere jabetzen zati bat uzten zion elizari testamentuan, edo diru kopuru bat. Jauregiaren historiarekin jarraituz, Marinaren testamentuko borondatea ez zen beteko hil zen unean. Gerora berriz, bere bilobak, Maria Alonsaren alabak, bere izebaren bide bera jarraitzea erabakiko zuen, eta hil aurretik, bere dirua, bere izebarenarekin batera, mojen komentu bat irekitzeko erabiltzea nahi zuela utziko zuen idatzita. Bere azken borondate hau betetzea bere osaba Franciscoren eskuetan utziko zuen, hau da, Rodrigoren sasikumearen eskuetan, zeinak, Rodrigo eta Mariaren oinordeko guztiak hilda egonik, bera izan ezik, hauen borondatea ez betetzea erabakiko zuen. Horrela, Jauregira bizitzera joango zen, bere bost seme-alabekin batera.

Aberatsa eta boteretsua izango zen Francisco, ondorengo bide komertziala jarraituz aberastuko zena: Burdin minerala erosiko zuen Bizkaian, kalitate handikoa, ondoren Sevillan salduko zuena. Bertan Amerikarekin merkataritzan zebiltzan ontziak erosiko

zituen, edo Terranovara bakailaoa arrantzatzeraz zihoazenak. Azken ereduari jarraiki, gero bakailao hau gatzetan sartu eta Euskal Herrian salduko zuen. Botere politikoa ere lortuko zuen Franciscok, Ermuko alkate izatera iritsiz urte hauetan. Une honetan ordea, bere zoria aldatu egingo zen: Santo Domingoko Ordenak bere aurka denuntzia bat jarriko zuen, bere familiaren azkeneko borondateak ez betetzeagatik, eta epaiketa irabaziko zuten. Franciscok amore eman behar izan zuen, eta oinordekotzan jasotako dirua komentu bat egiteko erabil zezatela baimendu. Handik denbora gutxira hil egingo zen, komentuaren eraikuntzaren ardura bere semeari utziz, Francisco izenekoa baita ere.

Hala, 1594an, benetako komentu bat eraiki arte mojak Jauregian biziko zirela erabaki zen, eta jabeek moldaketak egin beharko zituztela eraikinean funtzio hau bete ahal izateko honek. Aldaketa hauek Jauregiko leihoak txikitzea, edo zelosiak jartzea hauetan, sakristia bat eraikitzea, eta logelak mojentzako prestatzea barne hartu zuten. Gainera, mojek ate txikia erabiliko zuten, ez handia. Komentuaren etapa honek oso gutxi iraungo zuen, izan ere, Franciscok ez zuen bere hitza beteko, eta ez zien mojei agindutako dirua pasako. Hauek zorrez beteta, bertan behera uztea Jauregiko bizitza erabakiko zuten, eta beste ongile batek herrian etxe bat eman ziela aprobetxatuz, hara joan ziren bizitzera, gaur egun Komentukua den kalean.

Jauregia berriro Lobianotarren eskuetara itzuliko zen, baina ez Franciscoren etara, baizik eta Isabel, Francisco sasikumearen alaba zenetara. Azken hau inguruko familiarik garrantzitsuenetako bateko maiorazgoarekin zegoen ezkontuta: Zaldibartarrak. Hauek ez ziren Ermuan biziko, eta beraz, alokatu egingo zuten Jauregia, ez zuena aldaketa handirik jasango denbora luzez, alokairuan zeudenek zegoen bezala mantentzen baitzuten. XVII. mendean zehar, eraikina familia boteretsu baten ondaretik beste baten ondarrera igarotzen joango zen, ezkontza bidez, zeinak beti hirugarren batzuei alokatuko zieten, azkenean Peñafloredako Kondearen eskuetan amaitu zuen arte.

1794an, frantsesek herria erre zutenean Konbentzio Gerraren testuinguruan, zenbait zuzi Lobiano Jauregiaren teilatura eroriko ziren, ipar mendebaldeko zatira, konkretuki. Zati hau oso kaltetua suertatuko zen, teilatuaren zati bat ere eroriko zelarik. Kondeak zenbait konponketa burutu behar izango zituen orduan, Jauregia alokatzen jarraitu ahal izateko, baina zituen ondasun ugarien artean, Lobiano Jauregi bat gehiago besterik ez zen, eta ez zen garrantzitsua inondik ere. Horregatik, egindako konponketak material merkeekin eginak izango ziren, eta kalitate baxukoak. Hauek zenbait aldaketa eragingo zituzten jatorrizko eraikuntzarekiko; hauek konkretuki: ipar mendebaldeko zatiko gela oso bat kendu egingo zen; teilatuaren maila jaitsi egingo zen; balkoi nagusiaren apaindura garaietan modan zegoen estilo barrokorra moldatuko zen; eta zalgurdien gela bi gela berritan banatuko zuten. Sukalderako ere leiho berri bat irekiko zuten, eta eskailerarako leiho berri borobil bat ireki. Lorategi eta baratzera joateko ate bat zabalduko zen lehenengo pisutik, gaur egun oraindik kontserbatuko dena. Azkenik, eskailera nagusiko harrizko heldulekua kendu egingo zen, eta egurrezko eskaileraren ganga ere bai. Ikusten den moduan, ez zuten ezer askorik gehitu, eta dezente kendu zuten, izan ere, helburua ez zen Jauregia edertzea, bere alokairurako prest uztea baizik.

Hau izango zen Jauregiaren funtzioa XIX. mende osoan zehar. Beren jabeentzat garrantzia galtzen joango zen denbora honetan, XX. mende hasieran puntualki bakarrik erabiltzera iritsi arte, bere gainbehera ekarriko zuena, ez baitzuten lehen bezainbeste zainduko.

XX. mende hasieran Trake baserriko jabeak sartuko ziren hemen bizitzera, beraiek izango zutelarik jabetza XXI. mendera arte, ukiulu bihurtuz beheko pisu guztia. Zenbait leiho irekiko zituzten garai honetan, beraien beharren arabera (fatxadan dagoen harlanduzko dintelik gabeko leihoa, esaterako). Jauregiari erantsita zenbait etxe ere egingo ziren, kalitate txarrekoak. Armeriako tailer txiki batera emango zuen lehen aipatutako leihoak, solairu tarte batean egingo zena, eta fatxadan egindako leiho berriaren argia jasoko zuena.

Ermuko Udaletxeak XX. mende amaieran erosiko zuen, birmoldatuz eta Kultur Etxe bezala erabiliz. Birmoldaketa honetan teilatuko habeen erliebeak galduko ziren, edo eraikinaren izkinetako otsoak (bat bakarrik kontserbatzen da, hego ekialdeko izkinan).

### **EGUNGO EGOERA:**

Birmoldaketa eta eraberritze guztien ondoren, gaur egun kontserbatzen dena jatorrizko Jauregiari fidel zaion eraikin bat da, bere kanpoaldearen birmoldaketa eredugarria izan baitzen. Horretarako, ikerketa arkeologiko eta historiko bat burutuko zituzten eraberritzearen aurretik. Esan beharra dago hala ere baldintza onetan mantendu zenez ordurarte (1794ko sutean kaltetutako zatiaz gain, gainerakoa ondo kontserbatuta zegoen) birmoldaketa ez zela oso zaila izan. Hala ere, lehen aipatu bezala, zenbait elementu ezin izan dira kontserbatu jatorriz ziren bezala.

### **LOBIANOTARREN BESTE JABETZA BATZUK:**

Aipatu beharrekoa da, Jauregiaren gain, Lobianotarrek dorre bat ere bazutela, gaur egun jada existitzen ez dena. Ez dakigu gehiegi eraikin honen inguruan, bakarrik gaur egun Valdespina Markesaren Kalea denean egongo zela, eta eskuz esku familia baten eskuetatik beste batzuenetara igarotzen joango zela ezkontza bidez, Granadako Markesen eskuetan amaitu zuen arte. Historiak Dorre honekin erlacionatutako elezahar bat utzi digu hala ere. Isabel de Lobiano du protagonista kondairak (lehen aipatutako Jauregiaren jabea izango zen Isabel de Lobianoren biloba), dorretxearen oinordekoa izango zena. Bere gurasoek Mutrikura bidaliko zuten alaba, ikasketak burutzera, beraiek hautatutako ezkongai batekin ezkondu artean. Baina Isabelek, komentuan emandako urte haietan mutil bat ezagutuko zuen: Pedro de Idiaketz, Mutrikuko familia garrantzitsu bateko bigarren semea, baina bigarrena izanda, familiako ondaretik ezer jasoko ez zuena. Bi gazteak elkar ikusten ibiliko ziren urteetan zehar, 1596ko gau batean mojetako baten laguntzarekin eta Pedoren familiarenarekin elkarrekin ihes egingo zuten arte. Gainerako mojek ez zuten gehiegi tardatuko gertatutakoaz ohartzen, eta herrikoei abisua emango zieten kanpaiak joz. Isabelen familia ere azkar konturatuko zen jazo zenaz, eta beraien alaba bahitua izan zela pentsatuz, eta edonola ere, beraien ohorea inork zalantzan jar ez zezan, gazteen atzetik joatea eta Isabel erreskatatzea erabaki zuten.

Mutrikuko herritarrak ere gazteen atzetik abiatuko ziren, eta Deba ibaia barkuz zeharkatzen ari zirela harrapatuko zituzten: ezingo zituzten harantzago jarraitu. Harrapatzeko azken saiakera batean, ontzia harrikadaka hondoratzen saiatu ziren, gazteen laguntzaile bati harri batek jo eta hil zuten arte.

Gazteek ihes egitea lortuko zuten hala ere, eta ezkontzea. Hiru seme-alaba izango zituzten, baina Pedro gazte hilko zen, eta Isabel ez zen berriz ezkonduko. Lobiano

familiak, lotsatuta gertatutakoaz, eta beren ohorea zalantzan jarri zelako, Idiakeztarrak denuntziatuko zituzten, Isabel bahitu eta ezkontzera behartu zutelaren esanaz, Gaztelako erregeak esku hartu behar izan zuen azkenean beren ohorea eta izen ona berrezartzeko.

Dorre horrez gain, Lobianotarrek hainbat lur izango zituzten, bai Ermuan bai Araban, Arabakoak dokumentaziotik desagertu baziren ere XVII. mendean zehar. Ermuan hainbat soro izango zituzten, zeinetan garia landatuko zuten, eta baso txikiren bat, nahiz eta jabetza hauek ez ziren oso garrantzitsuak izango, eta batez ere beren merkatari lanetik biziko ziren.

#### **BIBLIOGRAFIA:**

- Aranberri, F. (2001) *“Ermua- Eitzaga Leku-Izenak. Geure izanaren barrena”*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- Ayuntamiento de Ermua, (2001) *“Proyecto básico de Rehabilitación del Palacio Lobiano”*. Ermua: Ermuko Udala.
- González, E. (2004) *“Isabel de Lobiano”* Drogeteniturri Aldizkaria, 2004ko apirila, 18. orria.
- Pereda, I; Santana Ezkerra, A; Del monte Fernández, D. (2001) *“Estudio Histórico Arqueológico del Palacio del Lobiano. Memoria final”*. Ermua: Ermuko Udala.
- Pinedo, J.A (1996) *“Ermua, Mallabia eta Zaldibar. Bizkaiko Herrien Monografiak”*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia.
- Rodríguez Condado, E. (1998) *“El monasterio de Santa Ana de Elorrio”*. Elorrio.

#### **KOLABORATZAILEAK:**

- Fernando Aranberri.
- Ricardo Carro.
- Estibaliz González.
- Héctor Izaguirre.
- Rafael Totorica.

#### **EGILEA:**

Maddalen Zabaleta.